

*A la atención del Presidente de AS Bayonne,*

*Desde Durango Rugby Taldea queremos hacer llegar una carta que hemos recibido en el club en relación al comportamiento de varios de vuestros jugadores la noche del sábado, día 3 de septiembre, en el local de nuestro club y en las calles de Durango. Adjuntamos el texto original y la traducción al francés tal y como lo hemos recibido en el Club.*

*Original:*

*Durangon, 2016ko irailaren 5ean*

*Jarraian aurkezten den idatzi hau Durangoko Rugby taldeko zuzendaritza eta tabernari zuzenduta dago.*

*Kaixo,*

*Durangoko neska talde bat gara, eta larunbat gauean zuen tabernan gertatutakoaren berri ematera gatoz.*

*Zapatu gauean Goienkaleko jai giroaz gozaten ari ginen, jai giro lasai eta atseginean. Ohikoa dugun legez, Rugby tabernara hurbildu ginen, trago bat hartu eta dantzan jarduteko asmoz. Gauaren hasieran, ezezagunak zitzaizkigun mutil kuadrila bat bertatik zebilela ohartu ginen, eta rugby partida eta gero, alde zaharreko tabernetara hurbildu zirela kontatu ziguten.*

*Tabernara sartu orduko, giroa ez zen hain lasaia, jendea aztoratuta zegoen, baina tira, ez genion beste munduko garrantziarik eman. Gutako bat tragoa eskatzen ari zela, bizpahiru rugby jokalaria gainetik kendu ezinean zebilen, ez zuten bakean uzten. Beste batek albotik kentzeko esan zien, eta halamoduz, aldentzea lortu genuen. Dantzan ari ginela hasi zen eraso, irain, ukitze eta bestelakoan festa.*

*Inongo poesia barik kontatuko dugu gertatutakoa. Bizkarrean muxuak eta laztanak eman zizkiguten, behin baino gehiagotan ipurdia ikutu, ilean eskuak jarri, dantza egitera derrigortu, iraindu... gutako bat komunean zegoela, lau jokalariren artean hartu zuten eta ez zuten bakean utzi, neskak aski zela esan arte, era tinko eta gogor batean. Jokalariei bakean uzteko esan genien, bultz egin genien albotik kentzeko esanez, eta, hala ere, nahi zutena egiten jarraitu zuten. Egoeraz nazkaturik, taberna itxi bezain pronto, gutako hiruk etxera joateko erabakia hartu genuen, oso haserre geunden.*

*Lagun batek bera ere gurekin zetorrela esan zigun, negarrez. Lagun horrek "I want to fuck you" bezalako txerrikeriak entzun behar izan zituen, gainera, aurre egitean, jokalaria matxitoek erantzun egin zioten, harrokeriz eta komentario matxistak eginez eta eskua aurpegian jarri zioten, ez dakigu zein helbururekin. Lagun hori, jasandako erasoak kontatzen ari zitzaigula, beste hiru jokalaria hurbildu ziren gugana, eta neska bati musu eman zioten sorbaldan. Gutako bik (lau geunden) erantzun genuen. Beraiengana joan ginen aurre egitera, eta haietako batengandik tirakadak jasan genituen.*

*Hau guztia Durangoko Rugby taldearen aurka jokatzera etorri ziren jokalaria batzuk egin zuten, Durangoko Rugby tabernan. Soberan dakigu zuen jokalariek ez zutela inongo erasorik egin, ez gatoz hori salatzen. Baina gertatutakoaren erantzukizuna taldeak zeukala uste dugu.*

*Uda beltza izan da Euskal Herrian. Jaietan eta jai giroan, hamarnaka eraso salatu dira, eta ehundaka izan dira salatu gabekoak. Azken egunetan, Durangon 5 eraso gertatu dira, eta nazkatuta gaude. Goienkalen geunden, goizeko 1ean, dantzan eta trago batzuk hartzen. Jokalariok EDOZER egiteko eskubidea zeukatela uste zuten, neska talde bat ginelako.*

*Gutun hau, erantzun bat izan dezaten idazten dizuegu, haserre, minduta eta kokoteraino gaudelako.*

*Egiten dugun eskaera oso zuzena da: Talde horrek ez dezala sekula Durangon jokatu. Eta gertatutakoaren berri ematea, ziur baikaude gau hartan gustura asko egin zutela lo eta.*

*Eskaera hau bete ezean, gertatutakoa publiko egingo dugu, eta talde honi boikota egingo diogu herrian. Gainera, neurri hauek hartzen ez badira, Durangoko Rugby taldeari azalpenak eskatuko dizkiogu, publikoki.*

*Gertatutakoari buruz hitz egitea nahi baldin baduzue, behean gutako bi nesken kontaktua luzatzen dizuegu.*

*Egoera larria da, oso. Eta hemen inork ez du ezer egiten. Kalean, tabernetan... ibiltzea delitua ahal da?*

*Denak ez du balio*

*Zuen erantzunaren zain,*

*Aldez aurretik eskerrak emanez,*

Desde el Durango Rugby Taldea manifestamos nuestra repulsa absoluta a este tipo de comportamientos, siendo execrables a todas luces, lo son aún más por haber sido realizados por jugadores de rugby.

Como club, en el plazo de una semana, vamos a denunciar estos hechos ante el pueblo durangués y reafirmarnos en nuestro compromiso en realizar toda serie de acciones para prevenir estas agresiones.

A la espera de vuestra pronta contestación, se despide atentamente,

Juan Manuel Iriondo Aldana, Presidente de Durango Rugby Taldea